

BEZEROEN HARREMANA

Bezereakiko harremana oso garrantzitsua da gure negozioan. Kontua ez baita produktu bat saltzea bakarrik, familiei laguntza nahiz iraunkortasuna eskaintzea baizik.

Oihalezko pixoihalak aukeratzen dituzten gurasoek informazioa, babesa eta komunitate baten parte sentitzen dira. Horregatik, baliagarria da sare sozialetan edo foroetan taldeak sortzea, esperientziak partekatzeko eta zalantzak argitzeko, bai eta hasten ari direnentzat tailerrak edo hitzaldiak eskaintzea ere.

Bestetik, gure aholkuen bitartez, pixoihal hauek nola funtzionatzen duten ulertu ahal izango dute. Batetik, web-orrian hainbat bideo esleituko ditugu nola egin azalduz. Bestetik, gure emailera idatzi dezakete edozein zalantza izan ezker. Pertsona askok uste dute pixoihal berrerabilgarriak konplikatuak direla; beraz, garrantzitsua da ondo azaltzea nola funtzionatzen duten, nola garbitzen diren, zer material dituzten eta zer ingurumen-inpaktu duten. Bideo eta azalpen errazak partekatzeak asko laguntzen du gurasoak seguru senti daitezen.

Bezerearentzako zerbitzuak gertukoa izan behar du, produktu mota horrek jarraipena behar baitu. Lagungarria da zuzeneko laguntza-kanal bat izatea garbiketari, doikuntzei edo ihesei buruzko zalantzak argitzeko. Gainera, bezerearen lehentasunak ezagutzeak gomendio eta eskaintza pertsonalizatuagoak eskaintzea ahalbidetzen du.

Azkenik, garrantzitsua da lotura emozionala indartzea. Familia askok berrerabil daitezkeen pixoihalak aukeratzen dituzte arrazoi etiko eta ekologikoengatik, eta, beraz, komeni da gogoraraztea erabakiak eragin positiboa duela, hala nola hondakinak murriztea edo haurtxoaren larruazalerako onurak.